


Demagun goiz batean aire zabalean zaudela eta Eguzkiak dir-dir egiten duela indarrez. Ia ez dago hodeirik. Bat-batean, zerua ilundu egin da, eta, berehala, gaua etorri da!

Zerbait harrigarria gertatu da: **eguzki-eklipsea**. Minutu gutxiren buruan, astroa berriz agertuko da eta dena lehen bezala izango da.

Baina, zer gertatu da? Une batez, Ilargiak Eguzkia estali egin du, eta gure planetaren zati bat argitzeari utzi dio, zu zauden zatiari, hain zuzen ere.





**Eguzkia, Lurra eta Ilargia  
lerro berean jarri dira, eta  
eguzkiaren argia ez da  
iristen zu zauden lekura.**

